

Gure lurra

Esan ezin bestean eder dan lurzati baten jabe gara euskaldunok. Izango dira or-emen lurralde zoragarriak, baiña guk daukaguna ezta iñundik be kaxkarra, ta emoi bikain augaitik Goikoari eskerrak egin bearrean aurkitzen gara guztiok. Arturiko mesede ordezeskerak egitea beti yaku egoki, ta aurrerakoan be, inguruan ditugun mendi, baso, ibar ta soloak zainduaz, Bere begipe gozo ta arduratsuan, al bait zoriontsuen bizi gaitazan, geure biotz-ontasunaren lurrun ezta Ari eskiñi bear dautsagu.

Artobero usain barik esan geinke, gure lurra txit ikusgarria dala: olan bai diñoskue munduan zear asko ibilli ta bazter asko ikusi dabezanak. Berton bizi gareanok ez-kara sarri onegaz konturatzen, baiña onelaxe da. Ego aldera, Naperru'ko erribera, esaterako, ta Araba geiena lauak doguz, lurrak osura gizen ta erabilli-errezak; erdi aldera, zenbat mendi zoragarri, zugatz ezez ta arkaitz jagiz josirik; ipar aldera, or Kantauri, gaur orroaka ta biar bare-bare, gure arrantzale kementsuen bizileku.


izpazter lilluragarria, ziñez, Baiona'tik Kastro'rarte. Ta mendi arteetan, Bizkaia'n ta Gipuzkoa'n batez be, zelako ibar zabal, jori, urtsuak!

Eta mendialdez mendialde basetxe zuriak, uso-abi antzera, txairo ta ikusgarri; muiño ta aranetan bardin. Or eusko baserri obe-eziña. Ta or gure nekazaria baserri ortako errege. Txaloak jo beraril

Mendigoñi ta ertzetan pagoa ta aritza ikusten zan len ugari. Gaur piñua dogu gure bazterretako aberastasunik aundiena. Lengo zarrak aritza, pagoa ta olakoak ebezan maite; geurkuok —zekenagoak izan niuhait—, geuk sartu ta aldatuon niuhak irabazia atera nai dugu. Ta Bizkaia'ko ta Gipuzkoa'ko mendirik geienak piñuz ta jatorri berriak eta musker daukagu. Ta Bizkaia'ko seme Adan de Yar. ta Gipuzkoa'ko seme Aguirre au, gure artean anik sartu ebezan ba lenengo piñusaillak, lizar, insignis, zipres, tuya, eukalitur ta antzekoak. Asarre-gogorra sartu zan orduan gure baserriarren artean, kortetarako azpigarri barik eta sutarako egur

bage geratuko ziralakoan. Baiña bildur ori suster bakoa zan. Eta larogeñi urte oneitan zelako aldakuntza gure mendietan! Baserriarrak eurak be, lenengo ezetsi eben piñua gero, euren solo ta lurrik jorienetan be sartu dauskue gaur. Eta eurak be, ezpan-ertzean maltzurkerizko irribarretxoak erakutsiz, «urre orlegia» dala diñoskue parra-parra. Ez gagoz piñuaren kontra, baiña erdiko bidetik jokatzea beti yaku eder.

Ibar ta bee-alde gurietan bazan lenago frutu-landara naikoa, sagar, madari, intxaur, keiza, urretx, okaran eta gainerakoak; gaur, zoritxarrez, eztogu ainbesterik ikusten; sasoi baten bai ta baziran sagasti ederrak be, ta maasti bikainak eguzki begira, erripatxuetan.



Oraingo aldikadan, antza, ezta ain gozoa Usurbil'go ta Berriatua'ko sagardoa, ezta Mungi aldeko txakolin bizia be; atsegiñago yaku gaur eta zintzurra obeto leuntzen dausku repar gorriak. Oneik guzta guztiok, alan be, zugatz-mota ta edari, igali-arbola ta antzekoak, lenagoko gure baserriarren aogoxoa ta barren-jatortasuna erakusten dauskue argi ta garbi. Or basetxe bat, solo ta ortu txukun, garbi ta lerdin, erregiña dirudi; inguruan ditu zenbait nai igali-arbola, txiki ta aundi, txit egoki jarrita. Berau ikusiaz bakarrik, beingoan diñogu: «Zentzunezko ugazaba dau basetxe onek». Or beste bat, sasiz ta sastrakaz betea, ta ezpane an yaku loratu: «Au baserriar baldan!».

Oiz